

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala****2020ko zenbait udal-errodaren behin betiko onarpena**

Alkatetzaren 2020ko otsailaren 22ko Ebazpenaren bidez, 2020ko ekitaldirako honako zerga-errola hauek onartu ziren behin-behinean:

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.
- Larunbatetako merkatu ibiltaria ustiatzeagatiko tasa.
- Finkak, hausturak eta autokontsumorako baratzeak ustiatu eta erabiltzeagatiko tasa.
- Erabilera publikoko lurzoruan ostalaritzako terrazak jartzeagatiko tasa.
- Hilerrria artatzeagatiko tasa.
- Etxez Etxeko Laguntzarako Zerbitzua.

Errola horiek 15 egunez egon ziren jendaurrean, 2020ko martxoaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (43. zk.) eta udalaren webgunean argitaratuta, 2020ko martxoaren 4tik 25era bitarteko aldian.

Jendaurreko erakustaldi horretan ez da hasierako onespren horren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Legez esleituta ditudan ahalmenen arabera,

**EBAZTEN DUT:**

2020ko ekitaldirako errola fiskal hauek behin betiko onartzea, hasierako onespeneren arabera (ebazpen honen I. eranskinean daude jasota).

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.
- Larunbatetako merkatu ibiltaria ustiatzeagatiko tasa.
- Finkak, hausturak eta autokontsumorako baratzeak ustiatu eta erabiltzeagatiko tasa.
- Erabilera publikoko lurzoruan ostalaritzako terrazak jartzeagatiko tasa.
- Hilerrria artatzeagatiko tasa.
- Etxez Etxeko Laguntzarako Zerbitzua.

Urduñan, 2020ko apirilaren 17an. — Alkatea, Itziar Biguri Ugarte